

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

LURRALDEA ETA KLIMAREN ALDEKO EKINTZAREN SAILA

Plangintzarako eta Hirigintza Antolamendua Gauzatzeko Zerbitzua

Behin-behineko onespena ematea Vitoria-Gasteizko Hiri Antolamenduko Plan Orokorren aldakuntzari, zeinen helburua baita Mercedes Benz lantegiak bere inguruko hiri-mugikortasunean eta bide-segurtasunean duen eragina murriztea

Hauxe erabaki zuen Udalbatzak 2020ko apirilaren 24an egindako ohiko bilkuran:

Gaia: Behin-behineko onespena ematea Vitoria-Gasteizko Hiri Antolamenduko Plan Orokorren aldakuntzari, zeinen helburua baita Mercedes Benz lantegiak bere inguruko hiri-mugikortasunean eta bide-segurtasunean duen eragina murriztea.

Erabaki-proposamena

Mercedes Benz lantegiaren jardueraren etengabeko hazkundeak langile eta hornitzaileen trafikoa handitzea ekarri du, baita bertan ekoizitako furgonetena ere. Hori dela eta, lantegiaren inguruko aparkalekuak gainezka daude, eta trafiko parasito handia sortzen da. Halaber, gorago aipatutako enpresaren arduradunek hegoaldean dagoen lursailaren —trenbidearen eta Areatza kalearen artean— araudia egokitzea eskatu dute, bertan ekoizpen-hazkunderari aurre egin ahal izateko behar dituzten instalazioak jartzeko asmoz.

Proposatutako aldaketaren beharraren eta egokieraren arrazoia Mercedes Benz lantegiak bere inguruko hiri-mugikortasunean eta bide-segurtasunean duen eragina murriztea da, ekoizpen-prozesua errazteko neurriak hartuz.

Hauxe xedatzen du Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 129.1 artikulua: "Legegintza-ekimena eta erregelamenduak egiteko ahala baliatzean, administrazio publikoek printzipio hauen arabera jokatu behar dute: premia, efikazia, proportzionaltasuna, segurtasun juridikoa, gardentasuna eta efizientzia".

Aldaketaren premia eta efikazia bat datoz lehenago aipatu ditugun haren beharra eta egokierarekin; aldaketaren proportzionaltasuna eta efizientzia xedea lortzeko beharrezko esku-hartze gutxienekoaren printzipiotik eratorritzen da; aldaketaren segurtasun juridikoa eta gardentasuna ezarritako prozeduraren arabera eta bertan aurreikusitako herritarren partaidetza-programa aplikatuz kudeatzearen emaitza izango dira.

Udal-antolamenduaren aldaketa honen bidez indarrean dagoen Vitoria-Gasteizko Hiri Antolamenduko Plan Orokorra aldatu nahi da S 20 sektorearen eta ST 4 bitarteko sektorearen esparruan, Mercedes Benz lantegiak bere inguruko mugikortasunean duen eragina murrizteko. Horretarako, aparkaleku-eremu bat sortu da lantegiaren ekialdean, eta lantegia zuzenean lotu da Vitoria-Gasteizko Garraio eta Logistika Zentro Intermodalarekin (CTV), trenbidearen alboan (paraleloan) doan bide bati esker.

Horren osagarri, Torrogiko errekaaren desbideraketaren trazatua ere jasotzen da, jabari publiko gune, zortasun-gune eta eragin-gune berriak zehaztu direlarik, lehendik zeudenak beren horretan utzita. Desbideraketa errekaaren uholde-urak trenbidearen azpiko bideratze-obra eramateko egin zen. Hartara, Zabalganeko ur garbiak Zadorrara eramatea lortu da, eta errekaaren uholde-urak Fagorren biltegiaren azpitik igaro eta araztegiara doan hodi-biltzailean isuri zitezela ekidin.

Halaber, berdegune lokal gisa birsailkatu dira CTVren ekialdeko muturrean dauden ekipamendurako bi lurzoru, hartara zabalera emateko Torrogiko errekaaren alboko berdegune-zerrendari.

Proposatutako aldaketek Vitoria-Gasteizko HAPOren atal hauei eragingo diete:

20. sektorea (Jundiz ekialdetik handitzea), zeinen plan partziala 2001eko abuztuaren 3an onetsi baitzuen udalbatzak (abuztuaren 17ko ALHAO).

ST 4 bitarteko sektorea, zeinen plan partziala 1994ko apirilaren 15ean onetsi baitzuen udalbatzak (irailaren 2ko ALHAO).

20. sektorea trenbidearen hegoaldean dago, Jundizko industrialdearen eta ST 4 bitarteko sektorearen artean, eta Zurrupitieta kaleak (Jundizko industrialdea Zadorra hiribidearekin lotzen duen sistema orokorra da) bereizten du azken horretatik.

ST 4 bitarteko sektorea trenbidearen hegoaldean dago, 20. sektorearen eta Zabalganeko bizitoki-auzoaren artean, eta berdegune-zerrenda batek eta Mariturri bulebarrak (hiriaren hedapena mendebaldetik mugatzen duen sistema orokorra da) bereizten du azken horretatik.

Eremua zortasun hidraulikoen, trenbide-zortasunen, zortasun aeronautikoen eta aireportu-eragin akustikoaren eraginpean dagoelarik, eskatu dira dagoeneko beharrezko txosten sektorialak, eta horien edukia gehitu zaio prozedura honen xede den agiriari.

Hauxe da behin betiko onespena emateko aurkezten den proposamena:

a) Planteamendua gauzatzearen ondorioz, hiri-lurzoru gisa birsailkatzea, batetik S20 sektorea (Jundiz ekialdetik handitzea), non Vitoria-Gasteizko Garraio eta Logistikako Zentro Intermodala (CTV) dagoen, eta bestetik ST4 bitarteko sektorea, non Mercedes Benz (MBE) lantegia dagoen, biei Eremuaren Antolamendua Mantentzeko OR-6 Ordenantza aplikatuz (MOA-2/35 eta MOA-2/34, hurrenez hurren).

b) Birsailkatzea, ibilgailuen aparkaleku pribatu gisa, garai bateko ST 4 sektorearen ekialdean dagoen 14.293 metro koadroko lurzoru, gaur egun tokiko berdegunearen sailkapena duena, bertan aparkalekuak jarri ahal izateko eta fabrikako ibilgailuen sarbideak antolatzeke.

c) Birsailkatzea, bide pribatu gisa, Mercedes lantegiaren mendebaldean dagoen (lantegiaren eta Zurrupitieta kalearen artean) berdegunearen 408 metro koadroko azalera jakin bat.

Tokiko bide pribatua dela jaso da, jabari publikoan sar ez dadin eta, ondorioz, besterentzerik izan ezin dadin. Hori baimenduta dago, indarrean dagoen plan orokorrak ez baitu bide-sarearen jabetza publikoa ezartzen.

d) Aurrekoaren mugakide den Zurrupitieta kalearen kalifikazioa mantentzea. Bertan, 275 metro koadroko lurpeko pasabide bat baimendu beharko da, aipatutako tokiko bide pribatuaren eta jarraian deskribatzen denaren artean.

e) Birsailkatzea, bide pribatu gisa, Zurrupitieta kalearen eta 20. sektorearen artean trenbidearen paraleloan doan zerrenda bat, gaur egun tokiko berdegunea, 239 metroko luzeran 9 metroko zabalera duena, eta guztira 2.138 metro koadroko azalera osatu duena.

Ingurumen-ebaluazioa jaso zuen zirriborroan, espazio hori 20 metroko zabalerako zerrendan aparkaleku pribatu gisa kalifikatzea ere proposatzen zen, indarrean dagoen HAPOk jasotzen duen pribatu-izaera azpimarratzeko. Alabaina, ibilgu publiko baten gainean aparkaleku bat egiteak mesfidantza sortzen zion Uraren Euskal Agentziari, eta hori dela eta 9 metro zabalerako bidea planteatzen da.

Beraz, ingurumen-ebaluazioaren ondorioa da aldaketa.

f) Birkalifikatzea, tokiko berdegune gisa, CTVko 4.863 metro koadroko EQ-1 eta 9.964 metroko koadroko EQ-3 lurzoruak, gaur egun ekipamendu kalifikazioa dutenak, Torrogiko errekaaren alboko berdegune-zerrenda handitzeko.

Ingurumen-ebaluazioa jaso duen zirriborroan, espazio horiei ekoizpenerako birsailkapena ematea proposatzen zen, baina agiriaren ingurumen-tramitazioak iraun duen urtean ondorioztatu denez, ez da ekoizpenerako espazio gehiago behar eta komenigarria da Torrogiko erreka inguruko berdegunea handitzea.

Ez da aldaketa honen inguruko ingurumen-ebaluaziorik egin, baina argi dago hobekuntza dela alderdi horri dagokionez.

g) Plan Orokorrean gehitzea Torrogiko erreka uholde-urak jaso eta zuzenean Zadorrara eramateko asmoz egindako desbideratzeari dagozkien jabari publikoko gunee, zortasun-gunee eta eragin-gunee berriak (lehendik zeudenak mantenduta).

h) Eremuaren inguruko kaleetan (Lermandabidea eta Zuazobidea) kalifikazio xehatua egiazki egindako urbanizaziora doitzea.

Neurri hau ez zen jasotzen ingurumen-ebaluaziorako aurkeztutako zirriborroan, baina horren garrantzia deuseztat jotzen da, batez ere egungo egoera islatzera mugatzen dela kontuan hartuta.

Aldaketa-proposamena HAPOn dokumentazio honetan txertatzen da:

– 1.eranskina. Eremuko fitxak, hiria. II. liburukia. Xedapen orokorrak eta Lurraren erregimena eta Plan Orokorreko eremuak.

- Eremuen zerrenda (ST 4 eta S 20 izan ezik).
- Lurzoru urbanizagarria, erregimen iragankorrean. Aurkibidea (ST 4 izan ezik).
- Lurzoru urbanizagarria. Aurkibidea (S 20 izan ezik).

– IV. liburukia, VI. titulua, 6. kapitulua, 6.06.10 artikulua. - Hiri-lurzoruaren eta lurzoru urbanizagarriaren eremuetako erregimena, aski aurreratua eta gauzatze bidean dagoen plangintza zehatuan dute jatorria, eta Plan Orokorrean jasota daude, planak adierazten duen kalifikazio globala aipatzeko eta MOA-2/34 (ST 4 bitarteko sektorea, Mercedes) eta MOA-2/35 (Jundiz ekialdetik handitzea) txertatzeko.

– Dokumentazio grafikoa:

- Lurzoruaren sailkapena.
- Hirigintza-kudeaketa, Antolamendu eta kudeaketa eremuak hirian.
- Kalifikazio xehea (hiria).

Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 53. artikuluan xedatutakoaren ildotik, proposatutako aldaketa egiturazkoa da, aldatu egiten baitu lurzoruen sailkapena (lurzoru urbanizagarritik hiri-lurzorura), nahiz eta ez duen hirigintza-erakigarritasuna handitzen.

Aplikatzekoak diren legezko arauetara dagokienez, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 61. eta 62. artikuluek zehazten dituzte plangintza orokorraren eduki substantiboa eta eduki hori formulatzeko gutxienezko agiriak. Lege beraren 90. eta 91. artikuluetan, berriz, plan orokorra egiteko, izapidetzeko eta onartzeko arauak ezartzen dira.

Aipatutako 2/2006 Legearen 103. artikulua xedatutakoaren arabera, hirigintza planen berrikuste oro egiteko, beharrezkoa izango da hirigintza-plan horiek aldatzea; 104. artikulua dioenez, hirigintza-planen zehaztapenak berrikusi eta zehaztapenetan edozein aldaketa egiteko, plan mota berbera erabili beharko da, eta, horretaz gain, zehaztapen horiek onartzeko jarraitutako prozedura bera erabili beharko da.

Euskadiko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legeko 91.2 artikulua xedatzen duenez, behin-behineko onespena jaso duen plan orokorraren aldakuntza-proiektua Euskal Herriko Lurraldearen Antolamendurako Batzordeari igorri behar zaio, txostena eman dezan; izan ere, horiek guztiek bat etorri behar dute lurralde-antolamendurako tresna guztiakin zein estatuaren, erkidegoaren edo foru aldundiaren eskumenekoak diren alderdi sektorialekin.

Udalbatzari dagokio planeamendu orokorrari hasierako onespena ematea, baita hirigintzako legediak aurreikusitako planen zein bestelako tresnen udal izapidetzeari amaiera ematen dion onspena ere, Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 127.1.c) artikulua — Tokiko Gobernu berritzeko neurriei buruzko 57/2003 Legeak osatua — dioenaren arabera.

Goian aipatutako arauak kontuan hartuta, honako tramitazio hau izan du dosierrak:

– 2017ko abenduaren 11n, herritarren partaidetza-programa onetsi zuen Hirigintza Saileko zinegotzi ordezkariak, eta aldaketa hau idazteko eskatu zion Hirigintza Saileko Plangintzarako eta Hirigintza Antolakuntza Gauzatzeko Zerbitzuari.

– 2017ko abenduaren 21ean, Udalaren web-orrian argitaratu ziren planaren aldaketaren aurrekariak, ekimenarekin konpondu nahi diren arazoak, onestearen beharra eta egokitasuna, arauaren helburuak eta izan daitezkeen konponbide alternatiboak (arautzaileak eta ez arautzaileak).

– Udal Plangintzarako Aholku Kontseiluak 2018ko ekainaren 18an eta 2019ko abenduaren 2an ezagutu zuen proposatutako planeamendu-aldaketa, eta aldeko txostena egin zuen.

– 2019ko uztailaren 19an, udal-antolamenduaren aldaketa hori jasotzen duen udal teknikarrien proiektua onetsi zuen Tokiko Gobernu Batzarra.

– 2019ko urriaren 18an udalbatzak hasierako onspena eman zion dossier honek xede duen aldaketari.

– 2019ko urriaren 30ean ALHAOn eta 2019ko urriaren 25ean lurraldean zabalkunderik handiena duen egunkarietako batean argitaratu zen hasierako onspena, eta hilabeteko epea eman zen alegazioak aurkezteko. Emandako epean ez zen alegaziorik aurkeztu.

– 2019ko azaroaren 27an aldaketari buruzko informazio-saioa egin zen, eta planeamendu-aldaketaren nondik norakoak eta alegazioak egiteko aukerak eta modua azaldu zituzten bertan udal teknikariek.

– Sektore-txostenak egin zirelarik, eta horien aurrean, prozedura honen xede den aldaketa behin-behineko onesteko memoria idatzi zuten udal zerbitzu teknikoek 2019ko abenduan.

– 2020ko urtarrilaren 17an, udalbatzak behin-behineko onspena eman zion prozedura honen xede den HAPOn aldaketari.

– Uraren Euskal Agentziak (URA) aldeko sektore-txostena eman du, 2020ko martxoaren 23an, non adierazten baitu URAK eskatutakoa sartu duela Udalak aldakuntzaren testuan, eta Torrogiko errekararen parte bat bideratu eta estaltzeko 2007an egin ziren obrei dagokien proiektua tramitatu duela.

– Euskal Herriko Lurraldearen Antolamendurako Batzordeak, 2020ko apirilaren 1ean egindako bilkuran, “Vitoria-Gasteizko Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren aldakuntza, zeinen helburua baita Mercedes Benz lantegiak bere inguruko hiri-mugikortasunean eta bide-segurtasunean duen eragina murriztea” dosierrari trabarik ez jartzea erabaki zuen aho batez, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legea betetzei eta Euskal Herriko Lurraldea Antolatzeko 4/1990 Legearen instrumentuetara eta Autonomia Erkidegoko Erakunde Komunuen eta Lurralde Historikoetako foru organoen arteko harremani buruzko legea aldatzen duen 5/1993 Legean adierazitako alderdietara egokitzei dagokionez.

Vitoria-Gasteizko Hiri Antolamenduaren Plan Orokorren aldaketa honi dagokion memorian honakoak jaso dira: lantaldea, proposamenaren xedea, aurrekariak, aldaketaren justifikazioa eta beharra, hirigintza estandarrak betetzearen justifikazioa, antolamendu xehatuaren zehaztapenak, lursailen titularitatea, ingurumen ebaluazio estrategikoa, inpaktu akustikoa, kutsatutako lurak, zortasun-aeronautikoak, eragin hidraulikoak, komunikazio-sareak, trenbidearen gaineko eragina, kultura- eta natura-ondarea, eragindako administrazio-batzarren adierazpena, Udal Plangintzarako Aholku Kontseiluaren txostena, bideragarritasun ekonomiko eta finantzarioaren azterlana, iraunkortasun ekonomikoari buruzko txostena, genero ikuspegia txertatzea, inpaktu soziolinguistikoa, herritarren partaidetzarako programa, dokumentazio grafikoa eta lizentziak emateari uzteko beharrik ez egotea.

Aipatutako guztia kontuan harturik, eta behin betiko onetsi nahi den agiriak ez duenez alde-rik 2020ko apirilaren 6an behin-behineko onespena eman zitzaion agiriarekin, Mercedes Benz lantegiak hiri-mugikortasunean eta bere inguruko bide-segurtasunean duen eragina gutxitze aldera Vitoria-Gasteizko udalerriko Hiri Antolamenduko Plan Orokorrean aipatutako egiturazko aldaketa egitearen aldeko txosten juridikoa egin da, guztia ere udal zerbitzu teknikoek 2019ko abenduan egindako oroitidazkiaren arabera.

Proposatzen den antolamendu aldakuntzarekin bat etorritik, dosieraren parte diren hirigintzako agiriak haren beharra eta egiteko egokiera justifikatzen baitute, Toki Jaurbidearen Oinarri buruzko 7/1985 Legeak abenduaren 16ko Tokiko Gobernua Eraberritzeko Neurri buruzko 57/2003 Legeak osatua 122.4.a) artikuluan aitortzen dion aginpidea baliaturik, Lurralde Batzordeak erabaki hau aurkezten dio Udalbatzari:

Erabakia

1. Behin betiko onespena ematea Mercedes Benz lantegiak hiri-mugikortasunean eta bere inguruko bide-segurtasunean duen eragina gutxitzeko xedea duen Vitoria-Gasteizko Hiri Antolamenduko Plan Orokorren aldaketari, udal zerbitzu teknikoek 2019ko abenduan idatzitako oroitidazkiarekin bat etorritik.

2. Erabaki hau ALHAOn argitaratzea, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 89.5. artikuluan xedatutakoaren ildotik.

3. Erabaki honen kontra, administrazio-bidea agortzen baitu, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da Euskal Herriko Auzitegi Nagusiaren aurrean, bi hilabeteko epean, argitaratzen den egunaren biharamunetik, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen Legearen 46.1 artikuluan ildotik.

COVID-19ari aurre egiteko esparru sozial eta ekonomikoko premiazko neurri osagarriak hartu zireneko martxoaren 31ko 11/2020 Errege Lege Dekretuaren bigarren xedapen gehigarrian xedatutakoa dela eta, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkezteko epea etenda dago, eta delako Errege Dekretuaren indarraldia edo haren luzapenena bukatzen denean hasiko da zenbatzen.

Dosierreko dokumentazio teknikoa esteka honetan dago eskuragarri: www.vitoria-gasteiz.org/hapoa-mercedestrafikoaneragina

Aldatutako plangintza

– 1.eranskina. Eremuko fitxak, hiria. II. liburukia. Xedapen orokorrak eta Lurraren erregimena eta Plan Orokorreko eremuak.

- Eremuen zerrenda:

LURZORU URBANIZAGARRIA, ERREGIMEN IRAGANKORREAN:

S. T. 1. 32. sektorea, hegoa - bizitegiak (lehengo 4. sektorea).

S. T. 2. Lakuako 8B sektorea - Ibaiondo (lehengo L-11 eta L-12).

S. T. 3. Lakuako 9. sektorea - Lakuabizkarra 4 (lehengo L-10).

S. T. 5. Industria-sektorea, parke teknologikoa (lehengo 11. sektorea).

S. T. 6. Industria-sektorea, Miñao (lehengo 12. sektorea).

LURZORU URBANIZAGARRIA:

1. sektorea. S1, mendebaldeko zabalgunea.

4. sektorea. S4, mendebaldeko zabalgunea.

12. sektorea. S12, ekialdeko zabalgunea.

13. sektorea. S13, ekialdeko zabalgunea.

14. sektorea. S14, ekialdeko zabalgunea.

15. sektorea. S15, ekialdeko zabalgunea.

16. sektorea. S16, Armentia mendebaldea.

17. sektorea. S17, San Prudentzio hegoaldeko handipena.

18. sektorea. S18, Elorriaga-Arkauti.

19. sektorea. S19 Aretxabaleta-Gardelegi.

21. sektorea. S21, Industria-sektorea, Jundiz mendebaldeko handipena.

Langraitzeko industrialdeko sektorea.

IV. LIBURUKIA: ERAIKUNTZA ETA ERABILEREI BURUZKO ORDENANTZA

VI. TITULUA: ERAIKUNTZA ETA ERABILEREI BURUZKO ORDENANTZA

6. KAPITULUA: OR 6 ORDENANTZA BARRUTIKO ANTOLAMENDUAREN MANTENIMENDUA

6.06.10 artikulua. Plan Orokorren barnean, gauzatu samartuta dagoen edo gauzatu den xehetasun-plangintzaren ondoriozko hiri-lurzoruko eta lur urbanizagarriko barrutien erregimena

MOA-2 kalifikazioak —Barrutiko Antolamenduaren Mantenimendua, 2. maila— berariaz xehatuta (plan partzialaren, xehetasun-azterketaren edo bolumenen proiektu soilaren bidez) eta finkatuta edo nahiko gauzatu dauden poligonoak biltzen ditu, irabazizko erabilera duten baina hutsik dauden lurzatiak dituztelarik, zeinen berezitasun formalak direla eta, ezin baitira arautu Plan Orokorreko Eraikuntzari buruzko Ordenantzen babesean.

Poligono edo barruti hauen antolamendua, Hirigintza Plangintzako Araudiko 29. artikulua aplikatuz Plan Orokorra adierazten du, eta urbanizazioa zenbateraino gauzatu den kontuan hartuta (1), eraikuntza-mailaren arabera eta kudeaketaren bideragarritasunaren arabera zehazten da (lurzatiketa-proiektuak, konpentsazio-proiektuak edo lurren banaketa-proiektuak dituzte hauek, banaka onartu eta erregistratuta). Noski, hauen antolamenduak onargarria izan behar du Plan Orokorren barnean, eta honek gauzaterakoan sumatu diren arazoetan zuzenketa edo aldaketa txikiak eginaraz ditzake.

MOA-2 kalifikazioak zuzeneko jarduketako lur-eremu hiritarraren sailkapenarekin bat etor daitezke, hutsik dauden lurzatiek orube edo behin-behineko izaerako lur-eremu hiritar kalifikazioa badute baina eraikigarri gisa kaifikatzeko modukoak izan arren orube izateko egokiak ez badira.

4. serieko planoetan jasotakoa kalifikazio globala izango dute, eta intentsitatea, berriz, plan partzialean edo antzekoan jasotako eraikigarritasun gordina eta dentsitate gordina.

Kalifikazio xehatua Plan Orokorreko 5. serieko planoetan biltzen dena izango da, eta izaera loteslea izango du; halaber, erabileren esleipen zehatza adierazten duten planoetan ere zehaztuko da, bai espedienteak indarrean jarraitzen duenean edota baita berau laburtu eta ordezteko agiria idazten denean ere. Agiri horietako zehaztapen grafikoek plan partzialaren maila dute, xehetasun-azterketekin edo plan-partzialen aldaketa puntualekin izan ditzaketen loturei eta egokitapenei dagokienez.

Hutsik dauden lurzatiaren aprobetxamendua esplizituki jasotzen da dagokien plano bateratuan edo plan partzialeko lurzatiaren esleipenari eta aprobetxamenduari buruzko planoan, eta bertan nahitaezko bloketzat jotzen direnak aintzat hartuta zehazten, horietako bakoitzeko gehieneko azalera adierazten delarik, hots, solairu-kopurua, m² edo m³ eraikigarriak eta etxebizitzaren gehieneko kopurua. Aprobetxamenduaren zehaztapen horiek Plan Orokorrearen barrukoak dira, gehienekoei dagokienez, eta plan partzialaren barrukoak formari dagokionez.

1. Oinarrizko urbanizazioaren kontzeptuaren eduki zehatza Plan Orokorreko arauen IV. tituluaren dago zehaztuta.

2. Kalifikazio globalaren barruan, zenbait kasutan hiri-elementuak bereizi dira, zein, egungo hiri-egituraren betetzen duten rola dela eta, sistema orokorrekotzat kalifikatu baitira. Kalifikazio horrek ez dakar, inolaz ere, inongo aldaketarik poligono horien kudeaketa-prozeduran; bereziki, partikularren kontura urbanizatzeari dagokionez eta hirigintza-legedia betetzeko —Hirigintzaren Plangintza-araudiaren eranskinak— bertako berdeguneak ez zenbatzeari dagokionez.

MOA-2 gisa kalifikatutako barruti bakoitzaren erabilera-erregimena Plan Orokorrean adierazten da, dela berariaz, dela plan partzialaren beraren dokumentu bateginera edo jatorrizko agirira bidaliz. Lehenengo kasuan, erregimen hori Plan Orokorreko ebazpen gisa hartuko da eta bigarren kasuan plan partzialaren ebazpen gisa.

Horretarako, Udalak idazten dituen agiri bateginetik agiriak bateratu eta sinplifikatzeko izaera izango dute eta, ildo horretatik, Plan Orokorrearekin batera bideratuko dira, beronen osagarri ez badira ere.

Hala eta guztiz ere, testu bategin batzuek berraztertua izan den Plan Orokorrearen ezarritako oinarrizko erabaki batzuei buruz zehaztapenak egiten dituzte eta, beraz, kasu bakoitzean adierazi egingo dira. Zehaztapen horiek ere plan partzialeko erabakitzat hartuko dira. Zehaztapen horiek etapan plana bukatu delako Lur Erregimenari eta Balorazioari buruzko apirilaren 13ko 6/1998 Legeko 41. artikuluko suposizioetan biltzen ez diren planetan egingo dira.

Plan Orokorreko zehaztapenak edo MOA-2 gisa kalifikatu diren barrutiei dagokienez adierazten diren xehetasun-planetan edo testu bateginetan agertzen direnak ondokoak dira:

- MOA-2/1: Arriagako etxadia, Agirrelanda kalearen, Arriagako atearen eta Lanbide Heziketako Eskolaren artean.

Barruti hau behin betiko 1977ko martxoaren 2an onartutako xehetasun-azterketak antolatuko du, nahiko gauzatuta dagoenez honek indarrean jarraituko baitu.

Bertan agertzen diren ordenantza bereziek indarrean jarraituko dute Plan Orokorreko arau orokorrekin kontraesanetan ez dauden bitartean. Erabileren bateragarritasun-erregimena OR-4 eta OR-3 ordenantzetakoa izango da, Alfredo Donnay kalearen hegoaldean kokatutako zonarako.

- MOA-2/2: M-11 poligonoa, "El Caserío".

Behin betiko 1977ko otsailaren 8an onetsi zen plan partzialak indarrean jarraitzen du, etxebizitzaren kopurua arautzeko Udalak 1993ko uztailaren 30ean onartutako dokumentazio osagarriarekin. Lurzatiaren gehieneko etxebizitzaren kopuruari gehieneko lau etxebizitza gehitzea baimentzen da, katalogatutako eraikinetan kokatzen badira eta bertako jarduerak egituraren kontserbaziorako araututakoa betetzen badu. Erabileren bateragarritasun-erregimena eta birmoldatzeko eraikuntza-baldintzak OR-7 ordenantzak zehaztuko ditu, establezimendu publikoaren erabilera baldintzatua salbuespen bada ere, debekatuta egongo baita.

- MOA-2/3: 20. poligonoa, San Prudentzio.

Plan Orokorrean izen honen bidez adierazi den barrutian, behin betiko 1978ko urriaren 20an onartu zen plangintzak jarraituko du indarrean, berau garatzeko egin diren xehetasun-azterketan adierazten diren zehaztapenak kontuan hartua; salbuespenak izango dira etxebizitzetarako lurzatiko erabileren bateragarritasun-erregimenari eta birmoldaketari buruzkoak, kasu horretan OR-9.2 ordenantza eta bertan agertzen diren baldintzak aplikatuko baitira.

- MOA-2/4: Abetxuko. Familia bakarreko etxebizitzak eta bloke irekiak.

OR-8 eta OR-4.1 ordenantzak dira erreferentziakoak, zein sei tipologiatako zonifikazioaren bitartez garatzen baitira —A, B, C, D, E eta F— 2010ko urriaren 29 behin betiko onetsi eta 2010ko azaroaren 22ko ALHAOn argitaratu zen Plan Orokorrearen aldakuntzan, eta dagozkien planoetan baitaude grafikoki jasota.

- MOA-2/5: Astegietako blokeak.

Erreferentziako ordenantza, erabileren bateragarritasunari dagokionez: OR-4.1.

- MOA-2/6: Trenbidea - Eguerdiko pasealekua - Urkixoko markesaren kalea.

Etxebizitzaren multzoa eta espazio libre handiak, RENFEko merkantzien geltoki zaharraren birmoldaketaren barrutian. Foru kalearen gain dagoen eraikina ere biltzen du eta hau ere agiri berak garatuko du.

Garatzeko agiria: 1994ko maiatzaren 20ko plan berezia eta ondorengo aldaketak.

- MOA-2/7: Lakuako kirol-ekipamendua.

Etxebizitzaren eta kirol-ekipamenduen multzoa. Lehengo 1. sektorea.

Garatzeko agiria: 1987ko urtarrilaren 16ko plan partziala eta ondorengo aldaketak.

- MOA-2/8: Lakua – Eusko Jaurilaritza.

Etxebizitza kolektiboen eta hezkuntza- eta kultur ekipamenduen multzoa, neurri handi batean lehengo 2. sektorearekin bat egiten duena.

Garatzeko agiria: 1994ko urtarrilaren 21eko plan partziala eta ondorengo aldaketak.

- MOA-2/9: Estibalizko Andra Maria.

Familia bakarreko etxebizitzaren urbanizazioa.

Garatzeko agiria: 1986ko ekainaren 16ko plan partziala eta ondorengo aldaketak.

A-4159 errepidearekin muga egiten duten lurzatietan, Arabako Lurralde Historikoko Errepideei buruzko ekainaren 25eko 20/1990 Foru-arauan ezarritako eraginak kontuan izan beharko dira, bereziki eraikuntza-lerroari buruzkoak.

- MOA-2/10: Simon Anda, hegoaldea.

Garai bateko 8. jardun-unitatea.

Garatzeko agiria: 1989ko uztailaren 21eko xehetasun-azterketa.

Erabileren bateragarritasun-erregimena OR-3.1 ordenantzakoa izango da.

- MOA-2/11: Ansoleta.

Garai bateko 14. jardun-unitatea.

Garatzeko agiria: 1993ko ekainaren 18ko xehetasun-azterketa eta ondorengo aldaketak.

Erabileren bateragarritasun-erregimena OR-12 ordenantzakoa izango da.

- MOA-2/12: Betoñu Industrialia, hegoaldea.

Garai bateko 17. jardun-unitatea.

Garatzeko agiria: 1993ko abenduaren 15eko xehetasun-azterketa eta ondorengo aldaketak.

Erabileren bateragarritasun-erregimena OR-12 ordenantzakoa izango da.

- MOA-2/13: Unibertsitateen multzoa, 1. fasea.

Garai bateko 8. BIPB.

Garatzeko agiria: 1991ko irailaren 20ko plan berezia eta ondorengo aldaketak.

- MOA-2/14: San Prudentzio hiribidea, iparraldea.

Garai bateko 5. sektorea.

Garatzeko agiria: 1992ko uztailaren 31ko plan partziala eta ondorengo aldaketak.

- MOA-2/15: Lakuako 8A1 sektorea, Lakuabizkarra 1 (garai bateko L-07).

Etxebizitza kolektiboen multzoa, garai bateko 8. sektorearen parte bat (Lakuako L-07).

Garatzeko agiria: 1994ko apirilaren 15eko Alorreko Plana eta ondorengo aldaketak.

- MOA-2/16: Lakuako 8A2 sektorea, Lakuabizkarra 2 (garai bateko L-08).

Etxebizitza kolektiboen multzoa, garai bateko 8. sektorearen parte bat (Lakuako L-08).

Garatzeko agiria: 1994ko apirilaren 15eko plan partziala eta ondorengo aldaketak.

- MOA-2/17: Lakuako 8A3 sektorea, Lakuabizkarra 3 (garai bateko L-09).

Etxebizitza kolektiboen multzoa, garai bateko 8. sektorearen parte bat (Lakuako L-09).

Garatzeko agiria: 1994ko apirilaren 15eko plan partziala eta ondorengo aldaketak.

- MOA-2/18: Ospitale Militarreko etxadia.

Garai bateko 10. BIPB.

Garatzeko agiria: 1992ko maiatzaren 15eko plan berezia.

- MOA-2/19: Ehari-Gobeoko industrialdearen mendebaldeko muturrean dauden familia bakarreko etxeen multzoa.

Erabileren bateragarritasun- eta birmoldaketa-erregimena OR-9 ordenantzakoa izango da.

- MOA-2/20: Armentia familia bakarreko etxebizitzaren poligonoa. Armentia herria.

Erabilerei dagokienez erreferentzia OR-8 ordenantza izango da.

Mendiko bidea kaleko zenbaki bakoitietan, Txikia kaleko 12. eta 14. zenbakietan eta Armentia-abideko zenbaki bakoitietan etxebizitzaren azalera erabilgarria handitzeko soluzioak onartu ahal izango dira, betiere parametro hauek aldatzen ez badituzte:

— Erlaitzaren lerroa, gailurra eta estalkien faldaien inklinazioa.

— Estalkiaren azpiko espazioen argiztapena velux motako kofaduren bidez egingo da, eta ez dira inoiz kofadura amansardatuak onartuko.

— Ezingo dira aldatu kalera jotzen duten fatxadak.

— Baimendutako gehieneko eraikigarritasuna 120 m² eraikikoa izango da, eraikin bakarrean eta jatorrizko lerrokaduren barruan.

— Sotoko solairu bat baimentzen da, trasteleku- edo upelategi-erabilerarako.

– Etxebizitzaren azalera eraikigarria handitzekotan, lehendik dauden legez kanpoko eraikuntzak eraitsi beharko dira, eta lorategia libre utzi, behar bezala urbanizatuta.

– Lurzatiaren itxitura OR-8 ordenantzaren arabera egin beharko da.

Aurreko parametroak aldatzen dituzten etxadi osoko xehetasun-azterketak onartuko dira, betiere etxebizitza bakoitzeko gehienez 120 m²c-ko eraikigarritasunarekin, eta etxadi bakoitzeko etxebizitza kopuru errespetatuz.

- MOA-2/21: Prado-Magdalena.

Magdalena kaleak eta Prado kaleko 32 eta 34 zenbakiek mugatutako barrutia.

Plan Orokorren agiriko kalifikazioek arautuko dute, eta 1985eko maiatzaren 17ko BIPBeko eraikuntza-zehaztapenek eta geroztiko aldakuntzek.

- MOA-2/22: Jundizko industrialdea.

Garai bateko sektorearekin bat egiten du esparruak.

Garatzeko agiria: 1993ko azaroaren 19an behin betiko onetsitako plan partzialak eta horren ondorengo aldaketek arautuko dute.

- MOA-2/23: Ertzaintzaren Akademia, Arkautin.

Arkautiko Ertzaintzaren Akademiaren erakunde-ekipamenduaren sistema orokorraren eremuari eragiten dio.

Garatzeko agiria: 1990ko azaroaren 16ko plan bereziak eta horren ondorengo aldaketek arautuko dute.

MOA-2/24: Konstituzio plaza, 4, 5 eta 6.

Konstituzio plazako 4, 5 eta 6 zenbakiko lurzatiek mugatutako esparrua.

Plan Orokorren agiriko kalifikazioak arautuko du, eta 1988ko maiatzaren 10eko 801 Foru-dekretuaren bitartez onetsitako 1986ko Plan Orokorren aldakuntzako eraikuntza-zehaztapenek.

- MOA-2/25: 2. sektorea. Zabalgana iparra.

Zabalganeko garai bateko 2. sektorearekin (garai bateko 14) bat egiten du esparruak.

2001ko otsailaren 16an behin betiko onetsitako plan partzialak —2001ko otsailaren 26ko ALHAOn (24. zk.) argitaratua— eta gerora egindako aldakuntzek arautuko dute.

- MOA-2/26: 3. sektorea. Zabalgana hegoa.

Zabalganeko 2 garai bateko 3. sektorearekin (garai bateko 15) bat egiten du esparruak.

2000ko abenduaren 22an behin betiko onetsitako plan partzialak —2001ko urtarrilaren 12ko ALHAOn (5. zk.) argitaratua— eta gerora egindako aldakuntzek arautuko dute.

- MOA-2/27: 5. sektorea. Aldaia.

Zabalganeko garai bateko 5. sektorearekin bat egiten du esparruak.

2003ko maiatzaren 22an behin betiko onetsitako plan partzialak —2003ko ekainaren 6ko ALHAOn (65. zk.) argitaratua— eta gerora egindako aldakuntzek arautuko dute.

MOA-2/28: 6. sektorea. Mariturri.

Zabalganeko garai bateko 6. sektorearekin bat egiten du esparruak.

2002ko abuztuaren 2an behin betiko onetsitako plan partzialak —2002ko irailaren 9ko ALHAOn (102. zk.) argitaratua— eta gerora egindako aldakuntzek arautuko dute.

- MOA-2/29: 7. sektorea. Salburua.

Salburuko garai bateko 7. sektorearekin bat egiten du esparruak.

2001eko maiatzaren 2an behin betiko onetsitako plan partzialak —2001ko maiatzaren 21eko ALHAOn (57. zk.) argitaratua— eta gerora egindako aldakuntzek arautuko dute.

- MOA-2/30: 8. sektorea. Salburua.

Salburuko garai bateko 8. sektorearekin (garai bateko 13) bat egiten du esparruak.

2000ko abenduaren 22an behin betiko onetsitako plan partzialak —2001ko urtarrilaren 12ko ALHAOn (5. zk.) argitaratua— eta gerora egindako aldakuntzek arautuko dute.

- MOA-2/31: 9. sektorea. Santo Tomas.

Salburuko garai bateko 9. sektorearekin bat egiten du esparruak.

2002ko maiatzaren 17an behin betiko onetsitako plan partzialak —2002ko ekainaren 7ko ALHAOn (64. zk.) argitaratua— eta gerora egindako aldakuntzek arautuko dute.

- MOA-2/32: 10. sektorea. Izarra.

Salburuko garai bateko 10. sektorearekin bat egiten du esparruak.

2002ko maiatzaren 17an behin betiko onetsitako plan partzialak —2002ko ekainaren 7ko ALHAOn (64. zk.) argitaratua— eta gerora egindako aldakuntzek arautuko dute.

- MOA-2/33: 11. sektorea. Ibaialde.

Salburuko garai bateko 11. sektorearekin bat egiten du esparruak.

2002ko abenduaren 20an behin betiko onetsitako plan partzialak —2003ko urtarrilaren 13ko ALHAOn (4. zk.) argitaratua— eta gerora egindako aldakuntzek arautuko dute.

- MOA-2/34: ST 4 bitarteko sektorea. Mercedes.

Garai bateko ST 4. bitarteko sektorearekin bat egiten du esparruak. Mercedes.

1994ko apirilaren 15ean behin betiko onetsitako plan partzialak —1994ko irailaren 2ko ALHAOn argitaratua— eta gerora egindako aldakuntzek arautuko dute.


- MOA-2/35: 20. sektorea. Jundiz ekialdetik handitzea.


Garai bateko 20. sektorearekin bat egiten du esparruak. Jundiz ekialdetik handitzea.

2001eko abuztuaren 3an behin betiko onetsitako plan partzialak —2001eko abuztuaren 17ko ALHAOn argitaratua— eta gerora egindako aldakuntzek arautuko dute.

Vitoria-Gasteizen, 2020ko maiatzaren 26an

Alkate lehendakaria
GORKA URTARAN AGIRRE





- CLASIFICACIÓN DEL SUELO / LURZORU SAILKAPENA
- SUELO URBANO / HIRI LURZORUA
 - SUELO URBANIZABLE / LURZORU URBANIZAGARRIA
 - SUELO URBANIZABLE SIN SECTORIZAR / SEKTORIZATU GABEKO LURZORU URBANIZAGARRIA
 - SUELO NO URBANIZABLE / LURZORU URBANIZAEZINA


 Arabako Errenterako Batzordea
 Arabako Errenterako Batzordea

MODIFICACIÓN PUNTUAL ESTRUCTURAL DEL PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA
 PARA REDUCIR EL IMPACTO EN SU ENTORNO DEL TRÁFICO GENERADO POR LA FABRICA MERCEDES BENZ
 HIRI ANTOLAMENDIAREN PLAN OROKORRAREN EGITURAZKO XEDAPEN-ALDAMETA
 MERCEDES BENZ LANTEGIKO TRAFIKOAREN ERAGINA GUTAITZEKO

PLANIFICACIÓN PLANIFICAZIOA 4	PLANIFICACIÓN PROPOSICIÓN PLANIFICAZIOA PROPOSAMENA CLASIFICACIÓN DEL SUELO LURZORU SAILKAPENA
FECHA DE ADOCIÓN ENBARRA 2019	FECHA DE ADOCIÓN PROPOSICIÓN ENBARRA 2019
ESCALA 1:5.000	ELABORADOR ALFREDO PARR PINILLA

